

## Hiztegitxoa

Hobeto irakurtzen laguntzeko



<b>ageriko</b> irekiagoa, nabarmenagoa	«Neska hori gu guztiok baino <b>agerikoagoa</b> da.»	72
<b>aharrausi</b> aho zabalka, logura hotsa	«Gutunek <b>aharrausi</b> egin zuen.»	40
<b>ahoa bete hortz utzi</b> zur eta lur, harrituta utzi	«...beste norbaitengana zihoan, mutila <b>ahoa bete hortz utzita</b> , eta oraindik ere zer egin ez zekiela.»	11
<b>aitzaki</b> estakurua	«Lautan proposatu dizut azken asteotan, eta lautan izan duzu <b>aitzakiren</b> bat.»	61
<b>ajatu</b> gastatua, maiztua	«Bakero <b>ajatuak</b> .»	112
<b>amildegi</b> erroitza	«— Hegan badakigun erabakitzeke <b>amildegira</b> salto egin behar badugu...»	120
<b>amildu</b> malkartu, goitik jausi	«Hamar urte zituela hil zitzaion ama, tuberkulosiaren atzaparretan <b>amildua</b> .»	53
<b>antzeman</b> harrapatu, sentitu	«Gizonak belarriak apaldu zituen segituan, eta Anuskak haren lotsa bizia <b>antzeman</b> zuen.»	62
<b>antzematen da ... egin duela</b> ezagun da ... egin duela	«Hark ondo egiten du, e? — <b>Antzematen da</b> dantza <b>egin duela</b> txikitatik.»	34
<b>apopilo</b> ostatu hartuta dagoena	«...eta ondoren goiz-goiz jaikitzeke, <b>apopilo</b> ei gosaria prestatzeke.»	53
<b>asaldatuta</b> urduri, tentsioan	«Anuska zeharo <b>asaldatuta</b> zebilen, logikoa zen bezala...»	98
<b>askotariko</b> denetarik	«Zenbait lantegitan aritu zen <b>askotarikoa</b> egiten: karretilak eraman, hondakinak garbitu, zamalanak, igeltseroren laguntzaile, panelak muntatu...»	16
<b>astindu</b> inarrosi, mugitu	«Besoak altxatu eta <b>astindu</b> zituen airean.»	72
<b>atoan</b> berehala, ari batean	«Izortze <b>atoan</b> jaiki zen haren besoa aztertzeraz.»	68
<b>atximurka</b> zimiko, imurtxika	«Altxatu aurretik, Gutuneren <b>atximurka</b> sentitu zuen gerrian.»	11
<b>aurpegiratu</b> aurpegira egotzi, aurpegira esan	«Barkatu. Txikitatik <b>aurpegiratu</b> didate: zuzenedia naiz.»	67
<b>auskalogarrenez</b> batek daki zenbagarranean	«Haize bolada bihurri batek mutilaren kopetako ilea astindu zuenean, Anuska <b>auskalogarrenez</b> ohartu zen zenbaitearaino zuen barruan Galder.»	141
<b>axola</b> ardura, garrantzi, keska	«Zergatik esan diozu ez zaizula <b>axola</b> ?»	19
<b>aztoratu</b> bere onetik atera, larritu, estutu	«...horrek <b>aztoratzen</b> nau, zergatia ez jakiteak.»	132
<b>babo</b> tentel, kokola	«Anuska <b>babo</b> baten modura geratu zen begira, non sartu ez zekiela.»	27
<b>baitan</b> -engan, barnean	«Bere <b>baitan</b> bilatu zituen gelditzen zitzaizkion indar guztiak bilatzen...»	121
<b>bederen</b> behintzat	«Gero, bihotza lehertuta hiltzen ez bazen <b>bederen</b> , Galder sastatuko zuen.»	111
<b>betekada</b> tripakada	«Baina irten hasi eta astebetara <b>betekada</b> handia neukan.»	18
<b>bidaide</b> bide laguna	«Edozertarako, e? Lagun gisa eta <b>bidaide</b> gisa eta dena gisa. Potola eta titi handia izango naiz, baina itsua baere ez.»	49
<b>bihozti</b> sentimenduzkoa, bihozkorra	«Ez zen modurik itxurosoena diskurtso <b>bihozti</b> baten estreinarako.»	145



<b>birrindu</b> txikitu	«Lotsak <b>birrindua</b> egoten zen edozertarako.»	21
<b>bisigu begiak</b> arrain begiak	«—Zuk uste duzu nire txorimalo ile honekin zerbait lortu dezakedala? Nire <b>bisigu begiekin?</b> Ja!»	9
<b>bizitzaren bitxia</b> bai bitxia dela bizitza!, ze bitxia!	«Egoera absurdoa! —Beste behin egin zuen barre Galderrek—. <b>Bizitzaren bitxia!</b> »	44
<b>bortitz</b> indar handikoa	«Anuska ezagutzeak inflexio puntu <b>bortitza</b> ezarri zion bizitzan.»	132
<b>bozgorailu</b> megafonoa	«Gutunek aho ingurura mugitu zituen orduan eskuak <b>bozgorailuarena</b> egiteko.»	85
<b>damutuarazi</b> penatu	«Telefono zenbakia eman beharko dizut, edo hurrengoan zure lagunak <b>damutuarazi</b> egingo dit.»	82
<b>dardarka</b> ikaraz	«Neu ere <b>dardarka</b> nago!»	83
<b>desiratu</b> nahi izan	«“Magnetismo horrek berak agindutako balu nire bihotz bidea” <b>desiratu</b> zuen Anuskak.»	84
<b>dohain</b> esku ona	«—Beti esan didate <b>dohaina</b> dudala haurrekin...»	28
<b>duintasun</b> dignitatea	«“Ametsak hautsita eta <b>duintasuna</b> lurpean ditut...”»	41
<b>ederretsi</b> ederra sentitu, apreziatu	«Anuskak paisaia <b>ederretsi</b> zuen.»	153
<b>ego</b> norberaren izaera harroskoa	«...ilea luzatzen utzi eta laranjaz tindatzeaz batera, izaera ere bete egin zitzaion. Edo <b>egoa</b> . Edo hegoak. Oso goian egiten zuen orain hegan.»	11
<b>enbata</b> galerna, ekaitza	«Inoiz baino biluziago sentitu nintzen kolpetik, <b>enbata</b> baten erdian.»	150
<b>eraginkortasun</b> efizientzia, eraginkortasuna	«Bakoitza non eta nola jarri behr zuten hasi zitzaien beste guztii, <b>eraginkotasun</b> handiz hasi ere.»	61
<b>ergel</b> leloa	«Alferrikako negar <b>ergela</b> disimulatzek...»	21
<b>erremolatxa</b> beterraba, barazki mota	«... <b>erremolatxa</b> emango zuela, aurpegia, gorria baino gehiago, more-more.»	43
<b>erruz</b> ugari, asko	«Zoritxarrez, horretarako dirua behar zen. <b>Erruz</b> .»	57
<b>estim</b> aprezioa	«— <b>Estim</b> handian duzu gure Inaxio.»	31
<b>estreina</b> hasiera	«Ez zen modurik itxurosoena diskurtso bihozti baten <b>estreinarako</b> .»	145
<b>etsipen</b> desesperantza	«Ez hasi berriro <b>etsipenarekin</b> . Zer gertatu behar zaizu zeure buruarengan sinisteko.»	90
<b>ezkor</b> pesimista	«—Zu ez zara neska <b>ezkorra!</b> Zertarako zaindu planeta, egunen batean lehertuko bada?»	48
<b>ezuste</b> ustekabea, sorpresa	« <b>Ezuste</b> izan da zu ikustea. Ezuste ederra.»	83
<b>finko</b> irmo, tinko	«Mutilaren begiak pistari itsatsita zeuden. <b>Finko</b> .»	117
<b>fokalizatzea</b> gune batean zentratzea	«Oso nekaza egiten zitzaion pentsamoldeak <b>fokalizatzea</b> ...»	90
<b>fuselaje</b> hegazkinen gorputz zentrala	«...hegazkinaren <b>fuselajea</b> eta mendien tontorrak eta itsaso urdina...»	112




<b>gaitzitu</b> amorratu, sumindu	« <b>Gaitzitu</b> egin zituen, hasi aurretik ere, eta orain bere kontra zeuden.»	110
<b>garun</b> burmuina	«Melodia bat <b>garunean</b> sartzen zaizunean bezala.»	142
<b>gortina</b> geruza	«Anuskak, berriz, urrunen ikusten zuen mendirantz zuzendu zituen begiak, elur- <b>gortinaz</b> harago.»	28
<b>hasperen</b> zinkurina, intziria (arnasa hotsa)	«Galderrek <b>hasperen</b> labor bat egin zuen.»	12
<b>hauspo</b> birika	«Mutilarengana iritsi zen, <b>hauspoa</b> ondo berotuta.»	145
<b>hauteman</b> nabaritu, sentitu	«Kanpoan, Anuskak tantak <b>hauteman</b> zituen.»	23
<b>herrestan</b> narras, arrastaka, tarras	«Anuskari deitu, eta ia <b>herrestan</b> eraman zuen.»	76
<b>huskeria</b> sinplikeria, txikikeria	«Kopetako ilea mugitzen ikustea aski, bere sentimendu guztiak kiskaltzen hasteko. <b>Huskeria</b> handiagorik!»	141
<b>hutsal</b> alferrekoa, baliogabea	«Bi txoroaldi <b>hutsal</b> dira. Et ni kaka eta kaka barruari...»	76
<b>igeltsero</b> albañila	«Anuskak aipatua zion lantegi batean ibili zela karretilak eramaten, edo <b>igeltsero</b> baten laguntzaile.»	109
<b>igorri</b> bidali, helarazi	«Mutilarekin zer egin erabaki ezinda, Gutuneri <b>igorri</b> zizkion bere barruko galderak.»	85
<b>igurtzi</b> ferekatu, frotatu	«Anuskak amasa sakon hartu eta sudurra <b>igurtzi</b> zuen, abiatu aurretik.»	68
<b>ihardetsi</b> erantzun, arrapostu	«—Ez al duzu entzun Barricadaren “Ya no existen príncipes azules”? – <b>ihardetsi</b> zion Galderrri.»	14
<b>indultu</b> zigorra barkatzea	«... <b>indultua</b> irabazi dut?»	112
<b>inuxente</b> kokola, sineskorra, tuntuna	«Anuskak ez zuen <b>inuxente</b> hutsa izan nahi, ez zuen edozer irentsi nahi.»	17
<b>iraindu</b> mespretxatua, gutxietsia	«Bi Nobel Sari jasotzen lehena eta bakarretakoa. Txikia tamainaz, zeharo miretsia. Eta <b>iraindua</b> .»	8
<b>irmotasun</b> gogortasuna, sendotasuna	«Galderrek poliki hitz egiten zuen, baina <b>irmotasun</b> handiz.»	78
<b>jostari</b> olgetun, jolas jarrerarekin	«Gero Anuskari begiratu zion begietara, <b>jostari</b> antzean...»	50
<b>kabitu</b> sartu	«Barre batzuk <b>kabitzen</b> ziren tarte horretan.»	154
<b>kantoi</b> izkina, ertza	«Anuskak buelta hartu zuen. Lehen <b>kantoi</b> an biratzean.»	123
<b>karkara</b> barre-algara	«Gutunek <b>karkara</b> egin zuen.»	9
<b>kasik</b> ia	«...ez dut <b>kasik</b> ezagutzen Galder.»	112
<b>kaskatu</b> ahuldu	«Gutunek mingaina <b>kaskatu</b> zuen.»	99
<b>kiskali</b> erre, txingartu	«Galderrri barrua <b>kiskaltzen</b> zion pasioa zerua zen.»	57
<b>kokoriko jarri</b> kukubilka, pikotxean, makurtuta	«Kanpoko praka, bigarrena, txaketa, jertseak eta nikiak atera... <b>Kokoriko jartzea</b> lortu zuen azkenean.»	36



<b>konbultsio</b> dardara, gorputz ikara	«Anuskak kostata markatu zuen, hatzak <b>konbultsioak</b> jota zituela ematen baitzuen.»	82
<b>kopeta</b> bekokia	«Gutunek <b>kopeta</b> zimurtu zuen.»	76
<b>kosk egin</b> haginka egin	«Galderrek <b>kosk egin</b> zion beheko ezpainari.»	139
<b>kraskatu</b> zaratarekin hautsi	«...arrautza baten modura <b>kraskatu</b> behar zuen han behean?»	116
<b>kriskitin</b> kaskabiloa, kaskabela	«Gutunek <b>kriskitin</b> egin zuen hatzez.»	72
<b>kulunkatu</b> zabu egin, balanbatu	«Burua <b>kulunkatu</b> eta seriosotasun osoz mintzatu zen.»	141
<b>lanbro</b> euri fina, zirimiria	«Kanpoan euri <b>lanbroa</b> hasi zuen. Bere baitan bezala.»	47
<b>lausotu</b> gandutu, lainotu, difuminatu	«Behe-laino trinko samar batek <b>lausotzen</b> zuen bista.»	53
<b>lazzarria</b> beldurgarri, izugarri	«Eta min <b>lazzarria</b> egiten zuena.»	21
<b>laztu</b> tente jarri, arteztu	«Gorputzeko ile guztiak <b>laztu</b> zitzaizkion, burugainetik tximista sartu balitzaio bezala.»	70
<b>lehenbailehen</b> albait lasterren	« <b>Lehenbailehen</b> argitu behar duzu dena.»	137
<b>lerratu</b> irristatu, labaindu	«Bere fantasien paisaietan isilka <b>lerratzen</b> zen begirada ameslaria.»	27
<b>liskar</b> haserraldia, sesioa	«Neskek harri eta zur entzun zuten <b>liskarra</b> .»	77
<b>mahoi</b> oihal mota, kotoizko sendoa	«Han, aireportuan, agurea garai bateko baserritarren antzera zihoan oro har, <b>mahozko</b> galtza eta alkandora koadrodunarekin.»	58
<b>makina bat</b> asko, hainbat	«Eskiatzera joan behar zuten. <b>Makina</b> batek lehenbiziko aldiz.»	10
<b>mamitsu</b> sakona, sendoa	«Baina ez zitzaion ideia <b>mamitsurik</b> bururatzen.»	32
<b>mara-mara</b> erortze etengabea, jarraian	«Elur malutak leun eta astiro erortzen ziren, <b>mara-mara</b> , gero eta ugariago.»	24
<b>masail</b> mazela, aurpegiko bi aldeak	«Anuskak <b>masailak</b> goraino puztu zituen.»	122
<b>mesfidati</b> fidagaitz, konfiantzarik gabe	«Neska luzeenak <b>mesfidati</b> begiratu ondoren...»	110
<b>miretsi</b> harridura sentitu	« <b>Miresten</b> zaitut. Benetan.»	20
<b>murmurikatu</b> ahapeka esan, isilean	«—Ez da nire printzea — <b>murmurikatu</b> zuen Anuskak.»	16
<b>musu truk</b> dohainik	«...langile txiroen seme-alabei ere irakasten zien <b>musu-truk</b> , premiazkoa iruditzen zitzaiolako hezkuntza...»	53
<b>ñabardura</b> xehetasuna, detailea	«Lainoen gainean ibiltzea, lurraren koloreen formak eta <b>ñabardurak</b> aldatzen sentitzea begirada bazterrez.»	57
<b>oihartzun</b> durundioa	«Haren <b>oihartzun</b> bizia.»	15
<b>pairatu</b> jasan, sufritu	«Baina bai lan egin, eta aldarri, eta garrasi, jende xumeak <b>pairatzen</b> zuen egoera ustel hura eraldatzen laguntzeko.»	54



<b>pasiera</b> osteratxoa, paseotxoa	«Lamarrek lo egin nahi zuela aprobeztatuta, busa hartu eta <b>pasiera bat</b> ematera joan nintzen elur pista inguruetara.»	43
<b>patrika</b> sakela, poltsikoa	«Gogorra izan da, baina bi amets utzi dizkirate <b>patrikan</b> .»	136
<b>pil-pilean</b> hizketa bizian, saltsan	«Dozenaka ikasle <b>pil-pilean</b> , hitz egiten, garrasika, zirrarak blai, eta bazkalosteko txangoaren zain.»	9
<b>pitzatuta egon</b> burutik jota, zoratuta	«Berehala konturatu naiz ezin dudala hau zabaldu edo <b>pitzatuta nagoela</b> pentsatuko dute.»	43
<b>pottoka</b> zaldi txikia	«Anuskak zaldiak eta <b>pottokak</b> ikusi zituen.»	94
<b>putz</b> kaka zaharra! (onomatopeia)	«Itxurazkoa. Nahi zuen egiten zuena. Algaran bizi zena. <b>Putza</b> .»	73
<b>puxika</b> globoa, airezko poltsa	«Anuskaren baitan beldurra puztu zen, metro bateko <b>puxika</b> baten antzera.»	18
<b>samin</b> mina	« <b>Samina</b> eta sumina.»	127
<b>samurtasunez</b> maitekiro, leun	«Anuskak zaldien zurda laztandu zuen, <b>samurtasunez</b> .»	96
<b>sarkastiko</b> ironia latz mingarria	«Prudenek begiak erdi itxi zituen, erdi serio, erdi <b>sarkastiko</b> .»	59
<b>sastatu</b> ziztatu	«Gero, bihotza lehertuta hiltzen ez bazen bederen, Galder <b>sastatuko</b> zuen.»	111
<b>segapoto</b> mugikorra, sakelakoa	«Mutilak <b>segapotoa</b> atera zuen poltsikotik. Bere tonu patxadatsuan mintzatu zitzaion neskari.»	81
<b>sekula</b> behin ere, egundo	«Sekula ez nintzen hain txiki sentitu.»	133
<b>sen</b> instintua	« <b>Senak</b> adi-adi jarri zuen bat-batean.»	54
<b>sentsazionalista</b> inpresionatzekoak	«...orduko <b>sentsazionalistek</b> zanpatuta eta irainduta.»	131
<b>simaur</b> animalien gorotza, satsa	«Leku guztietan galdetu dut, eta <b>simaurrezko</b> asto-lan batzuk baino ez ditut aurkitu. Eta guztiak onartu.»	79
<b>sorbalda</b> besagaina, besaburua	«Galderrek <b>sorbaldak</b> jaso zituen.»	146
<b>sumatu</b> nabaritu, igarri	«Anuskak korapiloa <b>sumatu</b> zuen errailetan.»	16
<b>sumin</b> amorrua, beroaldia, haserrea	«Samina eta <b>sumina</b> . Joan zaitetz txakurra atzeko zulotik puztera. Aio.»	134
<b>susmatuagatik ere</b> susmatu arren, nahiz eta susmatu	«Galderren irudia sartuegia zeukan buruan, berak eraikitako gezurrezko utopia zela <b>susmatuagatik ere</b> .»	17
<b>sustar-sustarretik</b> xehetasun guztiekin	«...orduan urdurituko zara niri dena kontatzen, <b>sustar-sustarretik</b> .»	107
<b>temati</b> burugogor, egoskor	«Lidiak ez zuen gogoratu ere egiten ezezko bat jaso zuen azken aldia, baina <b>tematia</b> izaten bazekien.»	22
<b>tentuz</b> kontu handiz	«... <b>tentuz</b> , edo ez zuen ezer lortuko.»	110
<b>tifoi</b> haize zurrumbilo euritsua	«Anuskak <b>tifoi</b> a zeukan bere baitan burrunbaka.»	142
<b>tori</b> eutsi, hartu	« <b>Tori</b> . Pantailan dago zenbakia.»	82



<b>totelka</b> zezelka, errepikatuz, motel	« <b>Totelka</b> galdetu zuen Anuskak: — Besoa... hautsita duzu?»	44
<b>tuntun</b> leloa, kokola	«— Baznekien? " <b>Tuntuna</b> , tuntuna...!"»	33
<b>txakur-amets</b> kimera, bete ezin daitekeena	«Artaburua naixela iruditzen zait, eta <b>txakur-ametsetan</b> hasi naizela.»	76
<b>txistu</b> listua, ttua	«Anuskak <b>txistua</b> irentsi zuen.»	143
<b>txoroaldi</b> zoroaldi	«Bi <b>txoroaldi</b> hutsal dira.»	76
<b>txundidura</b> lilura, mirespena	«... <b>txundiduraz</b> begiratu zion neskari.»	28
<b>txutxu-mutxu</b> marmarra, zurrur-murrua	«— <b>Txutxu-mutxu</b> gaiztoak.»	17
<b>uhala</b> hedea (larruzkoa zinta)	«Eta norbait hura Galder zen, ezkerreko besoa <b>uhala</b> batez lotua eta anaia txikia alboan.»	41
<b>ukabil</b> kolpea	«Anuskak <b>ukabilko</b> bat eman zion sorbaldan.»	147
<b>ukabilko</b> kolpetxoa	«Anuskak <b>ukabilko</b> bat eman zion sorbaldan.»	147
<b>umil</b> apala	«— <b>Umila</b> andrea.»	9
<b>xarmagarri</b> erakargarria, enkantua	«Galderri hegaldizale amorratu eta erretxina iruditu zitzaion, apur bat gor, apur bat erredikulu eta zeharo <b>xarmagarria</b> .»	58
<b>xarmagarria</b> polita, ederra	«Galderri hegaldizale amorratu eta erretxina iruditu zitzaion, apur bat erredikulu eta zeharo <b>xarmagarria</b> .»	58
<b>xinxangre</b> gatzbakoa, inozoa	«...ipuinetako printzesak bezala egotea, ipuinetako <b>xinxangre</b> horiek, urrezko dorretxe ergel batean, printzea noiz etorriko zain!»	85
<b>xirmi-xarma</b> aztikeria, sorginkeria	« <b>Xirmi-xarmaz</b> , azal eta hezur eralda zaitzakeen istripu basati baten modukoa.»	133
<b>zamalan</b> karga eta deskarga lana	«Zenbait lantegitan aritu zen askotarikoa egiten: karretilak eramanez, hondakinak garbitu, <b>zamalana</b> , igeltseroren laguntzaile, panelak muntatu...	16
<b>zanpatuta</b> zapalduta	«...orduko sentsazionalistek <b>zanpatuta</b> eta irainduta...»	131
<b>zapuztu</b> minduta, defraudatuta	«Orain ez nintzateke hain <b>zapuzturik</b> egongo, Gutu.»	136
<b>zartatu</b> pitzatu, arrakalatu	« <b>Zartatzeaz</b> sentitzen zuen bere barrualdea.»	124
<b>zimurtu kopeta</b> bekozkoa jarri, bekokia ilundu	«Gutunek <b>kopeta zimurtu</b> zuen.»	76
<b>zinak eta minak</b> arazoak	«— <b>Zinak eta minak</b> ikusi ditut. Baina hori gutxienezkoa da orain —azaldu zion Laidak—. Mina bideratu egin da.»	149
<b>zirrara</b> emozioa	«Dozenaka ikasle pil-pilean, hitz egiten, garrasika, <b>zirrarak</b> blai eta bazkalosteko txangoaren zain.»	9
<b>zirrikitu</b> bitarte estua	«Ez zuen <b>zirrikitu</b> handirik bere ametsei jarraitzeko.»	132
<b>zital</b> gaiztoa, txarra	«...eta neskari oso zaila zitzaion hartaz ezer <b>zitalik</b> sinestea.»	17
<b>zokoratu</b> baztertu, zokondoratu	«Galder, hala ere, tematia zen. Ez zitzaion burutik pasatu ere egin <b>zokoratzerik</b> .»	57





<b>zorabigarri</b> txundigarria, liluragarria	«Laida modelo bat bezain dotore mugitzen zen, bere naturaltasun <b>zorabigarriaz</b> , burua segurtasunez altxatua...»	10
<b>zur eta lur</b> harrituta	«Neskak <b>zur eta lur</b> begiratu zuen	118
<b>zurbil</b> margul, zuri-zuri	«Gaixo zegoela ematen zuela, hildakoak baino <b>zurbilago</b> .»	32
<b>zurturik</b> harrituta	«Gutunek <b>zurturik</b> begiratu zion.»	143